

● SEGMENTAZIOA

Enpresa bat sortzerako momentuan, oso garrantzitsua da **bezeroen presentzia**. Azken finean, bezeroak dira enpresa baten **diru-iturri nagusia**



eta beraiekin pentsatu gabe enpresa ez litzateke gai izango etekinak ateratzeko egindako lanari. Beraz, garrantzi handikoa da bezeroen iritziak eta interesak kontuan hartzea hauek beraien beharrak asetu ahal

izateko guk eskainitako zerbitzuekin. Horretarako, gaur egungo gizartearen egoeraren inguruan hausnartu behar da, horrela, bezeroek zer nahi izaten duten jakitzea lortzen dugu. **Bezeroek gustuko duten produktuak** jarri behar ditugu martxan, hauek enpresarengan erakarrita sentitu daitezten.

Gure merkatua aztertu eta gero, gure inguruan pertsonak duten **estres maila altua** dela konturatu gara. Horregatik, arazo honi konponbide bat eman nahi izan diogu eta hortik sortu da gure ideia.

ZER KONPONBIDE AURKITU DUGU?

Estres maila oso altua denez gure gizartean, gure lokalak onurak eduki ditzake pertsonaren egunerokotasunean. Gure enpresan **estres maila kudeatzeko alderdi desberdinak** daude, bezeroek irtenbide gisa aukera asko dituzte. Lasaitzeko modu desberdinak ditugu guztiok, gizakiok oso desberdinak gara eta bakoitzak estresa kudeatzeko modu bat dugu. Horregaitik, enpresan jarduera asko ditugu, **gela ezberdinetan banatuta** daude, horrela gela bakoitzean jarduera bat egin ahalko dute ekoizleek.



ZEINTZUK DIRA GURE BEZEROAK?

Aztertu dugunez, gizartean **adin desberdinetako jendeak** jasaten du estresa, maila desberdinak daude eta bakoitzak ezaugarri desberdinak dituzte:


- **Gazteak (16 urtetik gorakoek)** pairatzen dute estresa, batez ere, **ikasketengatik eta inguruan duten presioagaitik** izaten da. Hauek urte asko presiopean egoten dira, gehienbat ikasketetako azken urteetan. Azterketa asteetan estresa nabari igotzen zaie, asko izaten dute ikasteko eta. Baita **selektibitateko probaren presioa** dute, honek baldintzatuko baitu hauen etorkizuna eta nolabait urduritasun hori ezabatzeko gure enpresaren zerbitzua erabili dezakete.
- **Nagusiagoak (30-40)** direnak ere egoera antzekoak jasaten dituzte, **lana bilatzea** ez da erraza eta hau aurkitzerakoan zailtasun handiak izaten dituzte. Askotan langabaziaren beldurraren ondorioz edo lanean duten **lan kargarengaitik** ere estresa pairatzen dute. Hauei gure enpresaren alderdi askori erabilera emateak lagundu egingo liekete.
- **Helduak (40-60)** diren zuzenduta dago, hauek duten estresa ikaragarria baita. Alde batetik, **umeen arazoan ondorioz**; hauek sekulako pazientzia behar dute umeekin bizitzeko egunerokotasunean eta beste aldetik **beiraiek dituzten kezkek** ere egoera zailtzen dute.



Bezero gisa estres maila bai baxua edota altua dituztenak ditugu. **Merkatu masiboa** da gurea, edozein pertsona etorri litzateke eta bere estres maila jaitsiko litzateke gure materialaren bidez.

ZER DU BEREZIA GURE ENPRESAK BEZEROEI ESKAITZEKO?

Gure **enpresa berezia** da, beste enpresak ez bezalako, ikusiko ditugun kausa batzuegatik. Gizartean onura handiak izan ditzakeen zerbitzuak



eskeintzen ditugu eta estresak gure bezeroengan eragiten duen kalteak konpontzeko prest gaude.

Gure **bezeroak adin desberdinetakoak** direnez, onura desberdinak eman ahal dizkiegu. Alde batetik, gure lokalean izan ondoren izango duten

lasaitasuna, bezero bakoitzak dituen sentimenduak azalerratu ahal izango ditu enpresan eta honela estres maila jaistea lortu dezakete. Horrela, beraien egunerokoan hobeto sentituko dira eta egin behar dituzten jarduerak hobeto egiteko gai izango dira. Hauek dituzten arazoei aurre egiteko beste modu batzuk aurkituko dituzte eta lasaitasun handiagoarekin egingo ditu ekintzak.